




Izagirrek euskal literaturaren bilakaera islatu du antologia laburrean

ezik, Donostiari buruzko zenbait artikuluk eta ipuinek ere badute tarte *"Hiri bat literaturan. Literatura baten hiria"* antologia laburrean. Koldo Izagirrek dioenez, *"liburuaren helburua, Donostia abiapuntutzat hartuta, egin den euskarazko literatur sorkuntza ona eta anitza plazaratzea izan da. Euskarazko sorkuntza, gaztelaniazkoa ez bezala, gai da herritarren ametsak, nahiak edota desirak bideratzeko"*.

Koldo Izagirre



"Hiri bat literaturan. Literatura baten hiria". Hauxe da Koldo Izagirrek kaleratu berri duen antologia laburraren izenburua. Liburuak XX. mendeko 34 euskal idazleren lanak biltzen ditu. 34 idazle horietatik batzuk donostiarrak dira, Txillardegi, Joxean Muñoz edota Joan Mari Irigoien, kasu. Beste batzuk, aldiz, ez dira donostiarrak. Denen idazlanek, ordea, Donostia duté hizpide edo aipagai. Koldo Izagirrerren hitzetan, *"liburuak euskal literaturaren bilakaera islatzen du, hots, poesiatik hasita eta eleberrira iristeko egindako bidea, eta nola azkenean Donostia euskal nobelaren hiri bilakatu den"*. Hala, Emeterio Arresek 1901ean Habanan idatzitako *"Arratsaldean"* poemarekin hasten da antologia, eta liburuaren azken zatia Ramon Saizarbitoriak 2000n kaleratutako *"Gorde nazazu lurpean"* nobelatik aterata dago. Poesiak eta eleberririk ez

Saileko hirugarrena kaleratzeaz

Gotzon Egjarena eta Koldo Izagirrerena izan dira Alberdaniaren *"Bertako"* saileko lehen argitalpenak. Alberdaniako Inazio Mujika Iraolak jakinarazi duenez, Joseba Zubimendi idazle donostiarraren lana biltzen duen liburua izango da *"Bertako"* saileko hurrengoa. Alberdaniako ordezkariaren hitzetan, *"sail berriaren asmoa Euskal Herriko herrien, eta batik bat, hirien euskal kutsu ezezaguna ezagutaraztea da"*. *"Bertako"* saileko lehen liburua Alberdaniaren eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren arteko elkarlanaren fruitua izan dira. Mujika Iraolak aipatu duenez, *"Donostiarekin egin dugun bezala, Euskal Herriko beste hainbat hirirekin eta herriekin elkarlanean aritzeko asmoa dugu, euskal kulturari eman nahi diogun begirada ahalik eta zabalena izan dadin"*.

TXUKUN BIDE GARAJEA

GARBIKETAK
OLIO ALDAKETAK
AUTO KONPONKETA OROKORRA
ZUMARDI PASEALEKUA 9
20016 DONOSTIA
Tel.: 943 399085



LAN ESKAINTZA

IRAKASLE ESKOLAKO EDO PEDAGOGIAKO IKASLEAK
BEHAR DITUGU DONOSTIAKO ESKOLETAN HAUR
HEZKUNTZAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN ESKOLAZ
KANPOKO JARDUERATAN EUSKARA EMATEKO
Curriculum vitae ekarri helbide honetara:
Eustasio Amilibia 4, 37. lokala Tel.: 943 453334

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen dizkie donostiarrei.

Eskabideak aurkezteko epea: 2002ko irailaren 23tik urriaren 14ra, 9.00etatik 13.00etara

Informazioa

Konstituzio plaza, 2 behea - 20003 Donostia

Telefonoa: 943 48 37 50 Faxa: 943 48 37 65 E-mail:
udala_euskara@donostia.org



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

euskararen
donostia
patronatua